

ONDARROA. Udalari proiektu bat aurkeztu deutsie, Italiako Commune di Santa Flavian ekitaldia eskaintzeko



LORE BENGOTXEA

Inoiz ikusi ez dan lakoxe ikuskizuna dala ziurtatu dabe (argazkian, parte hartuko daben batzuk).

Berbea eta musikea lotuko ditue, gaur, Korretan

‘Argiuneak’ ikuskizunean sentsazino ugari sortu eragin nahi ditue

Lore Bengoetxea |

Pedro Maria Unanue Musikaldiaren XVI. edizinoaren barruan, *Argiuneak* ikuskizuna emongo dabe, gaur, 22:00etatik aurrera, elizako Korretan. Unanue Kamara Koralak eta Joxemari Urteaga idazleak musikea eta berbea lotu ditue, «sentsazino ezberdinak sortzeko helburuagaz». 70 lagunentzako lekua baino ez da egongo, «eta, beraz, komeni da astiaz ibilte».

Korretako beharrak amaitzen egoazala, Estibalitz Arrizabalaga Unanue Kamara Koraleko zuzendariari udako gau baterako ekitaldi-leku aproposa izango zala bururatuko jakon. «Toki ona da, batez be kamara koral batentzat, jente gitxi garelako eta tokia txikia dalako», adierazu dau. Beste alde batetik, Musikaldiko eskaintzearen barruan parte-hartzeko gogoagaz egoazan.

Gaurko ekitaldia berezia izango ei da. «Aurtengo neguan irakurketea musika tresnen soinuagaz lotzea modan egon bada be, sekula ez da koruaren emonaldi bategaz lotu. Lehenengoak izango gara, beraz», nabarmendu dabe Unanuekoek.

Joxemari Urteaga Lazkaon jaio baina Ondarroan bizi dan idazleak inoiz eurekin beharra egin dau, eta oraingoan be bera arduratu da irakurketarako testua ipintez. Hasieran beldur apurra emon eutsan arren,

erronkatzat hartu eban. «Gidoia eginda eukien. Abesti guztiak lotuko zituan historia bat asmatzea zan zeregina», azaldu dau Urteagak.

Sormena

Historia jasoteko prozesua zelakoa izan dan argitu dau berbeekin arduratu danak. «Musikearen letrea eta soinuak kontuan hartu eta dana jostea izan da nire beharra. Horretarako, musikea entzun eta horrek neuri sentitu eragiten deustana beste sentitu eragitea da asmoa», esan dau.

Hortik, berba eta musikea eskutik doazela, sentsazino ezberdinak sortu eragingo dituan eki-

taldi bat izango da gaurko aurkeztuko dabena. «Helburua, zera da: ikusi eragitea memoria txarra dala atzerantz bakarrik dabilena; memoria zaharrak eta esperantza gazteak behar ditugula konturatu eragitea. Gauza handiak txiki eta txikiak handi bihurtu ahal ditugula senti eragitea. Beti dagoela gure nekeak argitzen deuskuzan suren bat erakustera emotea», generatu dau lazkaotarrak.

Kantei jagokenez, batzuk a kappella abestuko ditue, eta beste batzuk musika tresnen laguntzeagaz. Iñaki Maruri egongo da pianoan, Miren Barrutiak flautea joko dau eta Maite Urdingiok, klarineta.

ESZENOGRAFIA

Ikuskizun dinamikoa

Estibalitz Arrizabalaga Unanue Kamara Koraleko zuzendariak dinoanez, «gaur egungo ikusleak kalidadea eskatzen dau, baina baita gauza barriak be. *Argiuneak* ikuskizuna barritasun horrekin dator». Bere esanetan, mogimendua daukan ikuskizuna izango da. Onartu dabenez, egon ahal dan zarateari beldurra deutsie. «Azken baten, toki ederra da holako ekitaldi bat emoteko, baina horrek zaratearen arriskua be badakar, batez be motorrena», adierazu dau. Hori dala eta, Udalari motorren joan-etorria zaintzeko eskatu deutsie, eta baita baiezkotzen erantzuna jaso be. Beste alde batetik, euren proiektua herrikanpora aurkezteko be prest dago. Ganera, Ondarroa Italiako Commune di Santa Flaviagaz anaikidetuta dagoela-eta, Udalari proiektua aurkeztu deutsie, eurak han eta hango musikariek hemen ekitaldiak eskaintzeko. «Guk letxerik, herriko beste talde batzuek be hartu-emonak hasi ahal ditue», dinoe.

Euskadiko disko eta liburu azokearen XIX. edizinoa zabaldu dabe

L.B. |

Euskadiko Liburu Azoken Batzordeak Ondarroako azokea zabaldu eban, atzo. Hilaren 21era arte, azken barritasunak ikusi eta erosteko aukerea egongo da Itsas Aurren. 14 erakusle dagoz, bederatzi postutan banatuta.

XIX. edizinoa beteko dau azokeak. Euskadiko Liburu Azoken koordinatzaile Asier Muniategik bertoko azokearen ezaugarriak azaldu zituan. «Ondarroakoa zaharrenetako da, eta beti etorri nahi izaten dogu, euskal disko eta liburuaren ekoizpenak

erantzun ona eukiten daudelako hemen», adierazo eban.

Beste alde batetik, urtero lege, idazle bat ekarriko dabe. Hilaren 20an, Gaizka Arostegik *El agote* liburua sinatuko dau Ttarttalo standean. Ganera, azokan erosten diran liburu eta diskoek %10ko beherapena eukiko dabe.

EAEn irakurzaletasuna jeitsi egin da (%52,2k jotzen dau bere burua irakurletzat); andrek irakurleen %56,9 osotzen dabe, eta euskerazko irakurleen %43,1 Bizkaian dago (Gipuzkoan dagoz irakurle gehien).



LORE BENGOTXEA

Ha zelako marraxoak!

Aste honetan harrapau dituen marraxoek ikusmen handia eragin dabe Ondarroako kofradian. Danetara, 140 pieza harrapatu ditue, 100etik 25 kilo ar-

tekoak (gehienak 60tik 80 kilo artekoak ziran). Batez be Frantzia eta Kataluniara bialtzen ditue. «Jateko gauza ederra da», adierazo dabe kofradian.

AGENDEA

ETXEBARRIA

EHNA egiteko aukerea: Txartela atara nahi dabenek Udaletxeko batzar gelara jo ahal dabe 11:00etatik 13:00etara.

LEKEITIO

XIII. Kale Antzerkia: Gaur eta bihar, egun guztian, saioak egongo dira kalerik kale.

MARKINA-XEMEIN

Karmen jaiak: Gaur, *Euskerien Eguna* izango da, eta, horren barruan, beste gauza batzuen artean, herri bazkaria antolatuko dabe. Biher, hainbat gauzaren artean, jubilauren bazkaria izango da, eta astelehenean, mariatxiek joko dabe. **Erakusketea:** Markina eta Xemeingo argazki erakusketea izango da Karmengo konbentuko erakusketa gelan.

ONDARROA

Sarrerak: Hilaren 19rako New York Ska Jazz Ensemble ska taldearen emonaldia antolatuko dabe Kafe Antzokian. Sarrerak hamar eurotan jarri ditue saltzen Lekeitioko Ganbaran, Markinako Iruzubi tabernan, Mutrikuko Bado Bodegoian eta Ondarroako Zurrumurrin eta Kafe Antzokian bertan.

Afaria: 1940an jaiotakoek afaria daukie hilaren 27an Handik Ona tabernan. Izena bertan emon behar da.

Inkestea: Ondarroa Lantzen inkestea egiten dabil etxebizitzaren ganeko premieia jakiteko. Artibai 8-ko Udal bulegoan dagoz. Bide batez, Astilleruko aparkalekuetan oraindino izena emon ahal dala gogoratu eragin dabe.

Kepa Badiolaren ongi-etorria: 19:30ean, omenaldi ekitaldia izango da, eta gauean, afari herrikoia Zubi Zahar ikastolan. Txartelak Anaitasunan dagoz.